



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 20a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—10-23/AUT-00002. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-23/ITP-00001. Interpelazioa, eskola-adineko ikasleen hezkuntza-beharrizanei erantzun egokia emateko beharrezkoak diren hezkuntza-ikaspostuen inguruko planifikazio eta neurriei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-23/POR-00021. Galdera, EmanZipa eta DaVid programen bilakaerari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00022. Galdera, Bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuaren onespenerari eta gauzatutako prozesu parte-hartzailearen ostean egindako aldaketei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00023. Galdera, birgaitze energetikoaren arloko dirulaguntza-deialdien aldaketei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (12. or.).
- 10-23/POR-00024. Galdera, Nafarroa Arena Pabilioiaren eremuko herritarren energia-komunitatearen proiektuari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (13. or.).
- 10-23/PES-00004. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialeko eremu osagarrietan jarduketak egin ahal izateko eginkizun tekniko, ekonomiko eta administratiboei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (13. or.).
- 10-23/PES-00005. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren artean funts europarren kontura proiektuak gauzatzeko sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren jarraipen-batzordeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (14. or.).

- 10-23/PES-00006. Galdera, helmuga-dezilaren arabera, dezil bakoitzean jasotako mugikortasunaren deskonposizioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (15. or.).
- 10-23/PES-00007. Galdera, iristeke dauden REACT funtsak Nafarroara iristeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (15. or.).
- 10-23/PES-00008. Galdera, zainketen aldeko Foru Itunean ezarritako ekintzak gauzatzeko toki-entitateendako finantzaketari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (16. or.).
- 10-23/PES-00009. Galdera, zainketen aldeko Foru Ituna gauzatzeko kronogramari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (17. or.).
- 10-23/PES-00010. Galdera, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, lurzoru urbanizaezinean artegi bat legezatzeko Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- 10-23/PES-00011. Galdera, Kattalingune zerbitzuak LGTBI+ pertsoneri emandako arretaren inguruko datuei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (19. or.).
- 10-23/PES-00012. Galdera, Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak haren publizitate-liburuxketan Caparrosoko abeltegizarrari aipamena egiteko “BIO” hitza erabiltzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- 10-23/PES-00013. Galdera, Remontivaleko ikasgela alternatiboak 21 urte arteko ikasleetara hedatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (22. or.).
- 10-23/PES-00014. Galdera, Errenta Bermatuaren prestazioa jasotzeko eskubidearen kontrolari eta jarraipenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (23. or.).
- 10-23/PES-00015. Galdera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei dagokienez, Nafarroari esleitutako funtsetatik itzuli beharko direnen zenbatekoaren estimazioari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (23. or.).
- 10-23/PES-00016. Galdera, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarterako proiektuaren kostuari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (24. or.).
- 10-23/PES-00017. Galdera, Nafarroan egiaztatutako familia gurasobakarrei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (25. or.).
- 10-23/PES-00018. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzaitza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa antolatzeke Mondragon Unibertsitatea hautatu izanari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (25. or.).
- 10-22/POR-00336. Galdera, toki-entitateek berdintasuneko eragileak kontratatzeke eta sendotzeko laguntzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (26. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- (INT20230001). Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek beren mailaren arabera 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (27. or.).
- (INT20230001). Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten urteko ordainsari gordinak (28. or.).
- (INT20230002). Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak (28. or.).
- (INT20230002). Foru parlamentariak 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (29. or.).
- (INT20230002). Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (29. or.).
- (INT20230002). 2023. urterako araubidea, foru parlamentariak egiten dituzten bidaia ofizialengatik eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariatz egiten dituztenengatik ordainsariena (30. or.).
- (INT20230003). Talde parlamentarioek 2023an jasoko dituzten dirulaguntzak (31. or.).

D saila:
HITZARMENAK

10-23/AUT-00002. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 45.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2023ko urtarrilaren 11ko erabakiaren bidez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatze aldera Negoziazio Batzordeak 2022ko abenduaren 28an sinaturiko akordioa igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. eta 172. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, honako hau ERABAKI DA:

1. Agintzea Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

2. Xedatzea Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren eztabaida eta bozketa eginen dela Legebiltzarreko Erregelamenduaren 172. artikuluen 2. arauan ezarritakoari jarraikiz.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**HITZARMEN EKONOMIKOAREN
NEGOZIAZIO BATZORDEA
2/2022 AKTA**

Madriren, 2022ko abenduaren 28an

Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatzuz:

Jesús Gascón Catalán jauna, Ogasuneko estatu-idazkaria.

Jesús Gascón Catalán jauna, Tributuen zuzendari nagusiaren ordeza.

Inés Olóndriz de Moragas andrea, Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Finantzaketaren idazkari nagusia.

Soledad Fernández Doctor andrea, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako zuzendari nagusia.

Javier Sánchez Fuentefría jauna, Aurrekontu eta Gastuetako estatu-idazkariaren ordeza.

Javier Sánchez Fuentefría jauna, Aurrekontuen zuzendari nagusia.

Mónica García Sáenz andrea, Aurrekontu Egonkortasuneko eta Lurraldeko Finantza Kudeaketako zuzendari nagusia.

Nafarroako Foru Komunitatea ordezkatzuz:

Elma Saiz Delgado andrea, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.

José Javier Esparza Abaurrea jauna, Navarra Suma parlamentu-taldea ordezkatzuz.

Ainhoa Unzu Garate andrea, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea ordezkatzuz.

Uxue Barkos Berruezo andrea, Geroa Bai parlamentu-taldea ordezkatzuz.

Adolfo Araiz Flamarique jauna, EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldea ordezkatzuz.

Mikel Buil García jauna, Podemos Ahal Dugu Nafarroa parlamentu-taldea ordezkatzuz.

José Miguel Nuin Moreno jauna, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldea ordezkatzuz.

Oscar Martínez de Bujanda Esténoz jauna, Nafarroako Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzailea.

Madrilgo hiribilduan, 2022ko abenduaren 28an, 10:30ean, bilera egin zuten lehenago aipatutako pertsonen, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkari, gai zerrendan sartutako gaiari buruz eztabaidatzeko asmoz.

Gaiak eztabaidatu ondoren, aho batez hartu ziren akordio hauek:

Akordio bakarra

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

Bat.- Onestea Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa, akta honen I. eranskinean dagoena, modu honetan:

– Hogeita hamaseigarren eta hirurogeita bosgarren artikuluei eman behar zaien idazkera berria.

– Hogeita hamabost bis artikulua eta zortzigarren xedapen gehigarria gehitzea.

Bi.- Erantsitako testua instituzio eskudunetara igortzea, ondorengo tramitazioa egin dezaten.

I. ERANSKINA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

35 bis artikulua. Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia.

1. Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Dena dela, Foru Komunitateak aitortpena eta diru-sarrerara egiteko ereduak onesten ahalko ditu (gutxienez ere, lurralde erkideko datu berak edukiko dituzte), eta likidazioaldi bakoitzean diru-sarrerara egiteko epeak ezarri; eredu horiek ez dira, funtsean, Estatuko Administrazioak ezarritakoetatik desberdinak izanen.

2. Zergaren ordainarazpena Nafarroako Foru Komunitateak edo Estatuko Administrazioak eginen dute, arau hauen arabera:

Lehenbizikoa. Zergaren eremu objektiboaren parte diren produktuak fabrikatzen diren kasuetan, jarduera egiten den establezimenduak non dauden kokatuta, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena.

Bigarrena. Zergaren eremu objektiboaren parte diren produktuak Europar Batasunaren barruan eskuratzen diren kasuetan, zergadunaren zerga-egoitza non dagoen, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena. Europar Batasunaren barruko eskurapenak bertan finkatu gabeko zergadun batek egiten baditu, haren ordezkariaren zerga-egoitza non dagoen, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena.

Hirugarrena. Zergaren xede diren produktuak arauz kontra sartzen diren kasuetan, arauz kontra sarrera egiaztatzen den unean produktu horiek non dauden, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena.

3. Bidezko diren itzulketak, itzultzeko eskatu den kuotak zein administrazioan ordaindu ziren, administrazio horrek eginen ditu.

Dena dela, kuotak zein administrazioan ordaindu ziren jakiterik ez dagoenean, itzulketaren eskubidea non sortu den, lurralde horretako administrazioak eginen du itzulketa.

4. Zerga ordainarazteko eskumena duen administrazioeko organoek egiaztatuko eta ikertuko dute zerga, alde batera utzi gabe zerga-administrazioen arteko lankidetzaz.

36. artikulua. Aplikatzekoa den araudia eta zergaren ordainarazpena.

1. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Dena dela, Foru Komunitateak aitortpena eta diru-sarrerara egiteko ereduak onesten ahalko ditu (gutxienez ere, lurralde erkideko datu berak edukiko dituzte), eta likidazioaldi bakoitzean diru-sarrerara egiteko epeak ezarri; eredu horiek ez dira, funtsean, Estatuko Administrazioak ezarritakoetatik desberdinak izanen.

2. Zergaren ordainarazpena Nafarroako Foru Komunitateak edo Estatuko Administrazioak eginen dute, arau hauen arabera:

Lehenbizikoa. Zergaren eremu objektiboaren parte diren gasak fabrikatzen diren kasuetan, jarduera egiten den establezimenduak non dauden kokatuta, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena.

Bigarrena. Zerga arautzen duen araudiaren arabera biltegitratzaile gisa baimendutako zergadun batek gasak saltzen edo entregatzen dituen kasuetan, eta baita kontsumitzen dituen kasuetan, haren jarduera egiten den establezimenduak non dauden kokatuta, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena.

Hirugarrena. Zergaren eremu objektiboaren parte diren gasak Europar Batasunaren barruan eskuratzen diren kasuetan, zergadunaren zerga-egoitza non dagoen, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena, salbu eta biltegitratzaile gisa baimendutako zergadunak direnean, horrelakoetan aurreko bigarren araua aplikatuko baita. Europar Batasunaren barruko esku-

rapenak bertan finkatu gabeko zergadun batek egiten baditu, haren ordezkariaren zerga-egoitza non dagoen, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena.

Laugarrena. Zergaren xede diren gasak arauz kontra edukitzen diren kasuetan, arauz kontrako edukitzea egiaztatzen den unean gas horiek non dauden, lurralde horretako administrazioak eginen du ordainarazpena.

3. Bidezko diren itzulketak, itzultzeko eskatu den kuotak zein administrazioan ordaindu ziren, administrazio horrek eginen ditu.

Dena dela, kuotak zein administrazioan ordaindu ziren jakiterik ez dagoenean, itzulketaren eskubidea non sortu den, lurralde horretako administrazioak eginen du itzulketa.

4. Zerga ordainarazteko eskumena duen administrazio organoek egiaztatuko eta ikertuko dute zerga, alde batera utzi gabe zerga-administrazioen arteko lankidetzaz.

65. artikulua. Zeharkako zergengatik doikuntzak.

1. Nafarroan balio erantsiaren gaineko zergatik jasotzen den egiazko bilketari adierazpen matematiko honen emaitza gehituko zaio:

$$\text{Doikuntza} = c (RR_{AD} + RR_{RE}) + (c - d) H$$

Azalpena:

$$H = RR_{TC} + RR_N$$

RR_{TC} = Lurralde erkidean balio erantsiaren gaineko zergatik jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_N = Nafarroan BEZatik jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = Inportazioengatik jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{RE} = Urrutiko salmentei eta barruko ondasun entrega eta zerbitzu emate batzuei aplikatu beharreko araubide berezien urteko egiazko bilketa, horien ezaugarria denean destinoko tributazioa eta leihatila bakarraren mekanismoaren bidez gauzatzea, eta Espainia denean kontsumoa egiten den Europar Batasuneko estatua.

$$c = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan}} \\ (\text{Kanariak, Ceuta eta Melilla izan ezik})$$

$$d = \frac{RR_N}{RR_{TC} + RR_N}$$

2. Alkoholaren eta edari eratorrien, tarteko produktuen, garagardoaren, hidrokarburoen eta tabako gaien gaineko fabrikazio zerga bereziengatik Nafarroan jasotzen den egiazko bilketari gehituko zaio adierazpen matematiko hauen emaitza:

a) Alkohola, edari eratorriak eta tarteko produktuak:

$$\text{Doikuntza} = a \text{ RR}_{AD} + (a - b) H$$

Azalpena:

$$H = \text{RR}_{TC} + \text{RR}_N$$

RR_{TC} = Alkoholaren eta edari eratorrien eta tarteko produktuen gaineko fabrikazio zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_N = Alkoholaren eta edari eratorrien eta tarteko produktuen gaineko fabrikazio zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = Alkoholaren eta edari eratorrien eta tarteko produktuen gaineko fabrikazio zerga bereziagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan}} \\ (\text{Kanariak, Ceuta eta Melilla izan ezik})$$

$$b = \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC} + \text{RR}_N}$$

b) Garagardoa:

$$\text{Doikuntza} = a' \text{ RR}_{AD} + (a' - b') H$$

Azalpena:

$$H = \text{RR}_{TC} + \text{RR}_N$$

RR_{TC} = Garagardoaren gaineko fabrikazio zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_N = Garagardoaren gaineko fabrikazio zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = garagardoaren gaineko fabrikazio zerga bereziagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a' = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan}} \\ (\text{Kanariak, Ceuta eta Melilla izan ezik})$$

$$b' = \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC} + \text{RR}_N}$$

c) Hidrokarburoak:

$$\text{Doikuntza} = a'' RR_{AD} + (a'' - b'') H$$

Azalpena:

$$H = RR_{TC} + RR_N$$

RR_{TC} = Hidrokarburoen gaineko zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_N = Hidrokarburoen gaineko zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = Hidrokarburoen gaineko zerga bereziagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a'' = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan}} \\ (\text{Kanariak, Ceuta eta Melilla izan ezik})$$

$$b'' = \frac{RR_N}{RR_{TC} + RR_N}$$

d) Tabako gaiak:

$$\text{Doikuntza} = a''' RR_{TC} - [(1 - a''')RR_N]$$

Azalpena:

RR_{TC} = Tabako gaien gaineko zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_N = Tabako gaien gaineko zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a''' = \frac{\text{Nafarroan dauden saltokien hornidurako tabako gaiak}}{\text{Zergaren aplikazioko lurraldean dauden saltokien hornidurako tabako gaiak}}$$

3. Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den egiazko bilketari gehituko zaio adierazpen matematiko honen emaitza:

$$\text{Doikuntza} = a'''' RR_{AD} + (a'''' - b'''') H$$

Azalpena:

$$H = RR_{TC} + RR_N$$

RR_{TC} = Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_N = Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a'''' = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan} \\ (\text{zergaren aplikazioko eremuan})}$$

$$b'''' = \frac{RR_N}{RR_{TC} + RR_N}$$

4. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergagatik Nafarroan jasotzen den egiazko bilketari gehituko zaio adierazpen matematiko honen emaitza:

$$\text{Doikuntza} = a'''''' RR_{AD} + (a'''''' - b'''''') H$$

Azalpena:

$$H = RR_{TC} + RR_N$$

RR_{TC} = Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_N = Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a'''''' = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan} \\ (\text{zergaren aplikazioko eremuan})}$$

$$b'''''' = \frac{RR_N}{RR_{TC} + RR_N}$$

Zortzigarren xedapen gehigarria.

Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga, ondarearen gaineko zergaren osagarri izanen dena, Nafarroako Foru Komunitatean eskatuko da Hitzarmen Ekonomiko honen 17. artikuluan ezarritako baldintza beretan, eta zerga hori indarrean den ekitaldi guztietan izanen ditu ondorioak.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/ITP-00001. Interpelazioa, eskola-adineko ikasleen hezkuntza-beharrizanei erantzun egokia emateko beharrezkoak diren hezkuntza-ikaspostuen inguruko planifikazio eta neurriei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko interpelazioa, eskola-adineko ikasleen hezkuntza-beharrizanei erantzun egokia emateko beharrezkoak diren hezkuntza-ikaspostuen inguruko planifikazio eta neurriei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako joera demografikoaren arabera, datozen urteetan jaiotzak nabarmen murriztuko dira, eta, horren ondorioz, nabarmen aldatuko dira eskola-adineko ikasleen hezkuntza-premiei erantzun egokia emateko beharko diren ikaspostuak. Horri gehituta azken legegintzaldi honetan sare publikoan nabarmen igo dela irakasleen kopurua, uste dugu ezinbestekoa dela datorren hamarkadarako irakasle-beharrizanei buruzko plan estrategiko bat ezartzea. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernua interpelatzen dugu jakiteko planifikazio hori ba ote dagoen, eta horren exekuziorako neurrien eta epeen berri izateko.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

F saila:
GALDERAK

10-23/POR-00021. Galdera, EmanZipa eta DaVid programen bilakaerari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak EmanZipa eta DaVid programen bilakaerari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Emanzipa eta David programak etxebizitza duina arrazoizko prezioan lortzeko modua ematen duten tresnak dira.

Zer bilakaera izan dute legegintzaldi honetan etxebizitza lortzeko eskubide subjektiboa garatzen duten EmanZipa eta DaVid programek?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

10-23/POR-00022. Galdera, Bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuaren onespeneri eta gauzatutako prozesu parte-hartzailearen ostean egindako aldaketei buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuaren onspeneri eta gauzatutako prozesu parte-hartzailearen ostean egindako aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen egungo dekretuak 15 urtetik gorako indar

rraldia izan du jada. 2023rako araugintza-planak dekretua eguneratzea aurreikusten du, etxebizitzaren alorreko eskakizun eta behar berrietara egokitzeko.

Departamentuaren aurreikuspenen arabera, noiz onetsiko da Bizigarritasunari buruzko Foru Dekretua, eta zer aldaketa egin zaizkio, gauzatu-tako prozesu parte-hartzailearen ostean?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

10-23/POR-00023. Galdera, birgaitze energetikoaren arloko dirulaguntza-deialdien aldaketei buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, birgaitze energetikoaren arloko dirulaguntza-deialdien aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urtarrilaren 5ean, birgaitze energetikorako jarduketarako laguntzen zenbait deialdi argitaratu ziren NAO-Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Zer aldaketa nagusi egin ditu zure Departamentuak birgaitzearen alorrean 2023rako aktibatutako dirulaguntzen deialdi desberdinetan?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

10-23/POR-00024. Galdera, Nafarroa Arena Pabilioiaren eremuko herritarren energia-komunitatearen proiektuari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, Nafarroa Arena Pabilioiaren eremuko herritarren energia-komunitatearen proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kon-

tseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

2020ko urrian, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdik Nafarroa Arena Pabilioiaren eremuko herritarren energia-komunitatearen proiektua aurkeztu zuen.

Energia-komunitatea, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak sustatua, eremu horretako herritarrek 2019tik aurrera egindako prestakuntza eta parte-hartzeko prozesu baten ostean sortu eta erregistratu zen. Alabaina, panelak jarri gabe daude oraindik, eta komunitatea erregistratu zenez geroztik, departamentua ez da berriz herritarrekin harremanetan jarri.

Ezagutza falta hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zergatik ez da gauzatu energia-komunitate hori, eta zergatik ez zaie gertatzen ari denari buruzko informaziorik eman urte hauetan auzotar parte-hartzaileei?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

10-23/PES-00004. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialeko eremu osagarrietan jarduketak egin ahal izateko eginkizun tekniko, ekonomiko eta administratiboei buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialeko eremu osagarrietan jarduketak egin ahal izateko

eginkizun tekniko, ekonomiko eta administratiboei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako konseilariak idatziz erantzun dezan:

Lurralde Kohesiorako Departamentua eginkizun tekniko, ekonomiko eta administratiboak ari da egiten, Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez

Gaindiko Proiektu Sektorialeko eremu osagarrieta-ko jarduketan balizko tankeratzea xede harturik.

1.- Zer eginkizun dira horiek?

2.- Noiztik ari dira eginbidean?

3.- Eginkizun horietako bakoitzaren amaiera-epe aurreikusia.

4.- Horien xehetasunak.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-23/PES-00005. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren artean funts europarren kontura proiektuak gauzatzeko sinatutako lankidetzaren jarraipen-batzordeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren artean funts europarren kontura proiektuak gauzatzeko sinatutako lankidetzaren jarraipen-batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Zer datatan eta administrazio bakoitzeko zer ordezkariarekin eratu zen Nafarroako Gobernuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren artean funts europarren kontura proiektuak gauzatzeko sinatutako lankidetzaren jarraipen-batzordea?

2.- Zer datatan eta zer gai-ordenarekin bildu da batzorde hori eratu denetik galdera hau erantzuteko unera arte?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00006. Galdera, helmuga-dezilaren arabera, dezil bakoitzean jasotako mugikortasunaren deskonposizioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, helmuga-dezilaren arabera, dezil bakoitzean jasotako mugikortasunaren deskonposizioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin zuen azaroaren 7an (10-22/PES-00339), honako hau galdetzeko: nola deskonposatzen den dezil bakoitzean jasotako mugikortasuna, Nafarroako pobrezia eta gizarte desberdinkeria buruzko VI. txostenean jasotako

9. grafikoko ("Mugikortasuna Nafarroan diru-sarreen dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte") helmuga-dezilaren arabera.

Abenduaren 16an, Eskubide Sozialetako kontseilariak erantzuna igorri zuen, zeinetan aipatutako grafikoak nola funtzionatzen duen bakarrik azaldu baitzuen. Txostenean jasotako grafikoa interpretatzeko informazioa bakarrik eman zuen.

Alabaina, parlamentari honek ez du hori eskatu. Hitzez hitz galdetu duena da nola deskonposatzen den mugikortasuna dagokien deziletako bakoitzean. Adibidez, esaten denean 7. dezileko kideen % 47 bitarteko beste dezil batzuetara mugitzen direla (3-8 dezilak), eskatzen dena da deskonposatu dezatela datua, eta adieraz dezatela horien guztien zer ehuneko mugitzen den bitarteko dezil zehatz bakoitzera, ez baita gauza bera horiek 3. dezilera edo 8. dezilera mugitzea. Eta berdin grafikoko dezil guztiekin.

Hori horrela, honako galdera honi erantzuteko eskatzen diot Eskubide Sozialetako kontseilariari:

Nola deskonposatzen da dezil bakoitzean jasotako mugikortasuna, jomugako dezilaren arabera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00007. Galdera, iristeke dauden REACT funtsak Nafarroara iristeari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, iristeke dauden REACT funtsak Nafarroara iristeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

2020ko abenduan iragarri zen Nafarroari 148 milioi euro zegozkiola REACT funtsetatik: 109,7 milioi FEDER funtserako ziren, eta 38,1 milioi, EGIFerako. Gaur arte, 14,2 milioi euro inguru bakarrik iritsi dira, eta, gainera, aurrerakina dira horiek.

1.- Zer aurreikuspen egiten duzue iristeke dauden REACT funtsak Nafarroara iristeari buruz, esleitutako 148 milioiak jaso arte?

2.- Azkenean iritsiko al dira esleitutako 148 milioi horiek, edo zenbateko txikiagoa iritsiko da azkenean Nafarroara?

3.- Xehatu gaur arte REACT funtsetan sartutako proiektuetan Nafarroan betetako ekintzak eta zenbatekoak.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

10-23/PES-00008. Galdera, zainketen aldeko Foru Itunean ezarritako ekintzak gauzatzeko toki-entitateendako finantzaketari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, zainketen aldeko Foru Itunean ezarritako ekintzak gauzatzeko toki-entitateendako finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak idatziz erantzun dezan:

Zainketen aldeko Foru Itunean ezarri da ekintza zehatzak eta neurgarriak egiten direla zainketak ikusgai egiteko, aitortzeko, partekatze eta birbanatzeko. Horri buruz, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

- Zer finantzaketa mota emanen zaie toki-entitateei zainketa-beharrei erantzuteko xedea duten zerbitzuak edo programak sortzeko?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

10-23/PES-00009. Galdera, zainketen aldeko Foru Ituna gauzatzeko kronogramari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, zainketen aldeko Foru Ituna gauzatzeko kronogramari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak idatziz erantzun dezan:

Zainketen aldeko Foru Itunean ezarri da ekin-tza zehatzak eta neurgarriak egiten direla zainketak ikusgai egiteko, aitortzeko, partekatze eta birbanatzeko.

• Zein izanen da 2023rako ekintzen kronograma, itunean finkatu diren eta itunaren xede orokorrari erantzuten dioten lau helburu estrategikoak lortze aldera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

10-23/PES-00010. Galdera, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, lurzoru urbanizazinean artegi bat legeztatze Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, lurzoru urbanizazinean artegi bat legeztatze Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta iNafarroako Gobernuak idatziz erantzun dakizkien:

2017ko apirilaren 11n, Tafalla-Zangozako Basozaintzak Ikuskapen Akta bat egin zuen baimenik artegi batean baimenik gabe egindako eraikuntza baten gainean (Kasedako 9. Industrialdearen 1. lurzatian). Kasedako Udala da eraikuntzaren jabea.

Hauxe dio aktak:

“Erreparatu da abereendako artegi batean pabiloi bat eraikitzen ari dela aurrez alepo pinu gazteek okupatutako lurzoru batean (ortoargazkiaren arabera, 2003an edo 2004an landatuak); errekerimendua egin ondoren, egiaztatu da ez duela jarduera horretarako baimenik. Egindako zelaitzelanek 2.000 metro koadro inguruko azalera hartzen du”.

2016ko abenduaren 22an, Kasedako Udalak lurzoru urbanizaezinean jarduerak eta erabilerak baimentzeko espediente bat aurkeztu zuen ardiartegegi bat egiteko herri horretako aipatutako 9. industrialdearen 1. lurzatian. Espediente hori 0001-0T02-2017- 000014 kodearekin izapidetuzen.

Espedienteari amaiera eman zion Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpenak, zeinak ukatu egin baitzuen Kasedako Udalak eskatutako baimena.

Hauxe dio Ebazpenak:

“Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalak, 2017ko urriaren 18an, aurkako txostena eman zuen jarduera proposatutako tokian kokatzeari dagokionez, ziurra baita toki horretan erromatarren garaiko egiturak daudela eta horiek desmuntatzeko baimenik –baldin eta ez badago gizarte interesa edo ezinbesteko arrazoirik– ez duela emanen Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiak, ondasun hori 2. gradukotzat jotzen baitu, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen 62. artikulua xedatutakoaren arabera.

2020ko martxoaren 12an egindako txostenean, aipatu Atalak adierazi zuen ikuskatzea egin ondoren honako hauek egiaztatu zituela:

– artegia aztarnategiaren gainean eraiki da.

– eraikuntza egiteko, lurra berdintzeko obra egin da.

– une honetan, artegiaren inguruetakoa gainazalean ez da hauteman aztarnategia kaltetu izanaren arrastorik.

– artegia kokatuta dagoen gunean egon zitezkeen aztarnak –gaur egun ez ditugu ezagutzen– lurra berdintzean desagertuko ziren”.

Ebazpena –bertan jasotzen denez– Kasedako Udalari, Ingurumen Eraginaren Atalari, Ingurumena Zaintzeko Atalari, Ondare Historikoaren Zerbitzuari (Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atala), Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuari (Herri-lurren Atala) eta Zerbitzu Juridikoari eta Lurralde Plangintzakoari, jakinaren gainean egoteko eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun daitezkeen:

1.-Nafarroako Gobernuak dakiela, Kasedako Udalari aurreko Ebazpena jakinarazi ondoren, Udalak erabakirik hartu al du ebazpena betetze aldera?

2.-Nafarroako Gobernuak dakiela, Kasedako Udalak eraitsi al du eraikuntza edo artegia, zeinaren legeztatzea aipatu Ebazpenak ukatu zuen?

3.-Ingurumena Zaintzeko Atalak eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

4.-Ingurumen Eraginaren Atalak eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

5.-Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak (Herri-lurren Atala) eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

6.-Zerbitzu Juridiko eta Lurralde Plangintzakoak eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

7.-Zer jarduketa egin ditu Ondare Historikoaren Zerbitzuak (Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atala) erromatarren garaiko egiturak artegia eraiki zen tokian mantentzen direla babesteko?

8.-Ondare Historikoaren Zerbitzuak (Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren

Atala) eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

9.-Lurralde eta Paisaia Zerbitzuak maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena eman ondoren, Nafarroako Gobernuak unitate administratiboren batek ireki al dio espedienterik Kasedako Udalarari xedapen hori bete dezan?

10.-Baiezkoan, zeintzuk izan dira eta zein egoeratan dago espediente hori?

11.-Ezezkoan, zer arrazoi egon dira Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 ebazpena ez betetzeko?

12.-Ez bazaio ireki espedienterik Kasedako Udalarari, zein arduradun administratibok edo politikok hartu du erabaki hori?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-23/PES-00011. Galdera, Kattalingune zerbitzuak LGTBI+ pertsonen emandako arretaren inguruko datuei buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkezturiko galdera, Kattalingune zerbitzuak LGTBI+ pertsonen emandako arretaren inguruko datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren Kattalingune zerbitzuari buruz berriki ezagututako albisteen harira:

1. LGTBI+ pertsonen emandako arretari buruzko zer datu eman ditu Kattalingune zerbitzuak eremu bakoitzean, eratu zenez geroztik? Datuak ahalik eta xehakatu egon daitezela eskatzen da.

2. Zer proiektu aurkeztu ditu Kattalingorri elkarrekin Kattalingune zerbitzua kudeatzen aritu den urteetan?

3. Zein dira departamentuaren lehentasunak, Kattalingune zerbitzuak bete beharreko gutxienezko eskakizunak finkatzeko orduan?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

10-23/PES-00012. Galdera, Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak haren publizitate-liburuxketan Caparrosoko abeltegizarrari aipamena egiteko “BIO” hitza erabiltzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak haren publizitate-liburuxketan Caparrosoko abeltegizarrari aipamena egiteko “BIO” hitza erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

2021eko maiatzaren 19an idatziz erantzuteko bi galdera egin ziren:

Hau zen lehenengoa: Valle de Odieta SCL merkataritza-sozietateak izapidetu al du espedienterik Departamentuan, INTIA enpresa publikoan edo Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluan (CPAE- NNPEK), esnearen nahiz esnekien edo behi-haragiaren ekoizle ekologikoaren ziurtagiria jasotzeko?

Eta hauxe, bigarrena: Europako Batzordearen 2008ko irailaren 5eko 889/2008 Erregelamenduak –zeinak Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko 834/2007 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen baititu, ekoizpen ekologikoaren etiketatze eta kontrolaren inguruan– zenbait baldintza ezartzen ditu produktu bat ekologikoa dela edo abeltegi bat bio-abeltegia dela ezartzeko. Departamentuaren ustez, Valle de Odieta SCLk ustiatzen duen abeltegiaren instalazioen estabulazio-, elikadura- eta hazkuntza-baldintzak bat al datoz baldintza horiekin?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak honako hau erantzun zuen 2021eko ekainaren 29an:

a) Lehen galderari dagokionez:

“Ekoizpen ekologikorako kontrol-agintaritzaren adostasun-marken erabilera zuzena zaintzeko prozeduraren arabera, honako gorabehera hauek egiaztatu ditugu, Valle de Odieta SCL merkataritza-sozietatearen arau-haustea izan daitezkeenak:

- Enpresaren publizitatean produkzio ekologikoari buruzko terminologia behar ez bezala erabiltzen dela hauteman da.

- Egiaztatu da ez dela operadore gisa ageri CPAEN-NNPEK kontrol-agintaritzak ziurtatutako operadoreen erregistroan”.

b) bigarren galderari dagokionez:

“Caparroso herrian dagoen Valle de Odieta SCL merkataritza-sozietateak dituen abeltzaintzako instalazioen estabulatu-, elikadura- eta hazkuntza-baldintzek ez dituzte betetzen Bartzordearen 2008ko irailaren 5eko 889/2008 (EE) Erregelamenduan jasotako eta behi-espezieari aplikatu beharreko ekoizpen-arau espezifikoak, batez ere animalia ekologikoen jatorriari dagokionez 8. artikuluan aipatutakoak, abereentzako ostatatu-baldintza espezifikoak buruzko 10. artikulua, 11. artikulua ugaztunentzako berariazko ostatu-baldintzei eta hazkuntza-metodoak dago-kionez eta aire zabaleko guneetarako sarbideari buruzko 14. artikulua.

2021eko ekainaren 17an, ohartarazpen bat igorri zitzaion enpresari, eta ohartarazi zitzaion deskribatutako arau-haustek larri gisa tipifikatzen direla Autonomiaz gaidiko lurralde-eremuetako jatorri deituei eta adierazpen geografiko babestuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen 31. artikulua 1. apartatuaren f) letraren eta k) letraren arabera, ekoizpen ekologikoari aplikatzekoa dena 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera”.

2021eko abenduaren 4an, El dia de Soria egunkariak, erreportaje batean, Valle de Odieta Caparrosoren duen ustiategia bisitatu zuen. “El

Cierzo, la Biogranja Modelo” da erreportajearen izenburua. Erreportajearen 22. orrialdean, kudeatzaileak esaten du bioabeltegiak ekonomia zirkularreko ekoizpen- eta kudeaketa-ere-dua duela.

Baina, horrez gain, Valle de Odieta enpresa Noviercasen sustatzen ari den makroabeltegiaren ezaugarriei buruz enpresak berak argitaratutako informazio-dosier batek hauxe dio 3. orrialdean, hitzez hitz:

“...eta garapen gorena lortu du gaur egungo Caparrosoko bioabeltegiaren, non esnetarako 5.200 behi dituen abeltzaintza-ustiategia baitu, zeinetan espero baita 2022ko amaierarako 7.200 behi egotea”.

Jarraian, dosierraren 9. orrian, hauxe esaten da, hitzez hitz:

“Animalien ongizatea.

Instalazioen eta protokoloen diseinua animalien ongizatera bideratuta daude, eta biosegurtasun-plan zorrotza dute. AENOR ziurtagiria lortzeko lan egingen da, Europako estandar zorrotzenak betetzen direla bermatze aldera. Valle de Odieta kooperatibak dagoeneko ziurtagiri hori dauka Nafarroako Caparrosen duen “El Cierzo” bioabeltegiaren”.

Merkataritza-enpresak publizitate-liburuxkan Caparrosoko abeltzaintza-ustiategia identifikatzeko “BIO” terminoa erabiltzen jarraitzen du, zeina ekoizpen ekologikoan ziurtatutako produktuetara mugatuta baitago.

Berriz ere, 2022ko otsailaren 23ko Diario de Navarra egunkarian, 33. orrialdean, Valle de Odieta enpresak bioabeltegi terminoa bidegabeki erabiltzen du, “Valle de Odieta añade un aditivo alimentario para reducir metano” izeneko berrian, hauxe esaten baitu, hitzez hitz:

“Modu horretan, bioabeltegia ustiategi aitzindaria bihurtzen da, ingurunearekin eta berotze globala murrizteko borrokaarekin engaiatua...”

Dirudienez, Departamentuak egindako ohartarazpenak (2021eko ekainaren 29an emandako erantzunean aipatzen zen) ez du ezertarako balio izan, Valle de Odieta berriz ere “Bio” terminoa erabili baitzuen 2021eko abenduan eta 2022ko otsailean. Bioabeltegi izena nahita erabiltzen jarraitzen dute haien irudia garbitu eta produktuak ez duen kalitate batez jabetzeko asmoz.

2092/91 zenbakiko Erregelamendua (EEE) indargabetzen duen Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko (EE) 834/2007 zenbakiko

Erregelamenduaren zioen azalpenean (23) hauxe esaten da:

“Kontsumitzaileak babestu eta lehia zintzoa bermatze aldera, produktu ekologikoak bereizteko erabiltzen diren terminoak ez dira erabili behar ekologikoak ez diren produktuetarako, Europar Batasun osoan, eta edozein hizkuntza erabiltzen dela ere. Babes horrek termino horien eratorriak edo ohiko laburdurak ere barne hartu behar ditu, hala bakarka nola konbinatuta erabiltzen diren”.

Era berean, honela definitzen du publizitatea:

“«publizitatea»: zuzenean edo zeharka produktu ekologikoen salmenta sustatzen duten jarreretan, usteetan eta portaeran eragina duen edo eragina izan dezakeen jendaurreko aurkezpen oro, etiketatzeaz bestelako edozein bitarteko erabilita egiten dena”.

Gainera, aipatu Erregelamenduaren 23.1 artikulua honako hau dio:

“Bereziki, eranskinean adierazitako terminoak, horien eratorriak edo laburdurak, hala nola “bio” eta “eko”, bakarka edo konbinatuta erabilia, Europar Batasun osoan eta Batasuneko edozein hizkuntzatan erabiltzen ahalko dira produktu baten etiketatze eta publizitaterako, produktu horrek Erregelamendu honetan ezarritako betekizunak edo Erregelamendua bera betetzen baditu”.

Halaber, artikulua horren 2. apartatuak hauxe dio:

“ez da erabiliko inolako terminorik, erregistratutako marketan erabilitako terminoak barne, ez eta etiketatuan edo publizitatean erabilitako jardunbiderik ere, kontsumitzailea edo erabiltzailea nahasaraz dezakeenik, produktu batek edo haren osagaiak Erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela iradokiz”.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkeztu dira, idatziz erantzun daitezten:

1- Departamentuak inolako jarraipenik egin al du jakiteko Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak “BIO” terminoa erabili ote duen bere publizitate-liburuxketan eta adierazpen publikoetan?

2.- Departamentuak aurreikusi al du kontrol-mekanismoak abian jartzerik merkataritza-enpresa horrek Caparrosoko abeltzaintzari buruz “BIO” terminoa behin eta berriro erabiltzean kontsumitzaileak eta erabiltzaileak nahasaraz ez ditzan?

3.-Zehazki, Departamentuak uste al du aipatu diren egitateak, bereziki publizitate-liburuxkan eta

abeltegian “BIO” terminoa behin eta berriz erabiltzea, falta larria izan litezkeela maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen –Autonomiaz gaidiko lurralde-eremuetako jatorri deiturena eta adierazpen geografiko babestuen– betetzeari dagokionez eta, gainera, egitate horiek urra dezaketela Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko (EE) 834/2007 zenbakiko Erregelamenduan xedatutakoa?

4.-Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresari zehapen-espediterik irekitzen ez bazaio, Departamentuaren ustez, zer jokabide izan beharko luke Departamentuak Caparrosoko abeltegitzarraz “BIO-abeltegi” izena erabiltzea ekiditeko?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-23/PES-00013. Galdera, Remontivaleko ikasgela alternatiboak 21 urte arteko ikasleetara hedatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Remontivaleko ikasgela alternatiboak 21 urte arteko ikasleetara hedatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2020ko otsailean, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Lizarrako Remontival Ikastetxe Publikoa bisitatu zuen, ikasgela alternatiboen egoera ezagutzeko eta aztertze horiek 21 urtera arteko ikasleetara hedatzeko aukera.

Remontivaleko ikasgela alternatiboak dira ezaugarri horiek dituen erreferentziatzko zentroa Estellerriko merindade osorako. Gaur egun, 16 urte arteko ikasleak baino ezin dira joan. Behin adin hori gaudituta, ikasleek Iruñera edo Tuterara joan behar dute, eta hori eragozpen bat da, ikasleak hurbileko eta konfiantzazko giro bat izatera ohituta baitaude.

2020ko ekainean, Hezkuntza Batzordeak aho batez onetsi zuen erabaki bat zeinetan Hezkuntza Departamentua premiatzen baitzuen “Remontivaleko instalazioetan behar diren espazioak gaitu eta egokitu ditzan hezkuntza-premia bereziak dituzten eskualdeko ikasleei arretea emateko, 21 urtera arte”.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkeztu ditut, idatziz erantzuteko:

1 - Gaur egun arte, zer izapide egin dira, Hezkuntza Batzordean onetsitako ebazpenean adierazitakoarekin bat, Remontivaleko ikasgela alternatiboak 21 urte arteko ikasleetara hedatzeko?

2 - Zer aurreikuspen daude ikasgela horien inguruan 2023-2024ko ikasturterako?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-23/PES-00014. Galdera, Errenta Bermatuaren prestazioa jasotzeko eskubidearen kontrolari eta jarraipenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Errenta Bermatuaren prestazioa jasotzeko eskubidearen kontrolari eta jarraipenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Gobernuak egin al du inolako kontrolik eta jarraipenik Errenta Bermatua jasotzen duten pertsonen egoeraren gainean, eskubideaz baliatzeko baldintzak betetzen segitzen dutela egiaztatzeko?

2.- Nola eta noiz?

3.- Zenbat pertsonari eten zaie prestazioa jasotzeko eskubidea kontrol edo jarraipen horien ondorioz? Xehatu datuak etenduraren arrazoiaren arabera, urteka 2016az geroztik eta udalerrika.

4.- Pertsona horietako zenbati aitortu zaie berriz ere prestazioa jasotzeko eskubidea eta hura jaso gabe zenbat hilabete egon ondoren?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00015. Galdera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei dagokienez, Nafarroari esleitutako funtsetatik itzuli beharko diren zenbatekoaren estimazioari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei dagokienez, Nafarroari esleitutako funtsetatik itzuli beharko diren zenbatekoaren estimazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echeagaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Next Generation funts europarren berritasunei buruzko azken agerraldian, joan den urtarrilaren 10ekoan, 477 milioi euro ingurutan zenbatetsi zenuen gaur egun arte Nafarroari esleitutako SEM funtsen zenbatekoa.

1.- Maileguak direla kontuan hartuta, egin al duzue zenbatespenik itzuli beharko den zenbatekoari buruz (azkenean Nafarroara iristen denari dagokionez)?

2.- Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zenbatetsitako zenbatekoa, eta xehatu zenbateko hori aurrekontu-partidatan.

3.- Erantzuna ezezkoa bada, noiz izanen du prest Gobernuak zenbatespen hori?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echeagaray

10-23/PES-00016. Galdera, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarterako proiektuaren kostuari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarterako proiektuaren kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den 2023ko urtarrilaren 10ean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko kontseilari Itziar Gómezek agerraldia egin zuen Parlamentuan, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartea (KINE) aurkezteko.

Horri buruz, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

Zer gastu sorrarazi dute –kontzeptuka eta kostu motaren arabera xehatuta– eta zer inbertsio egin dituzte Nafarroako Gobernuak, haren departamentuek, enpresa publikoek eta partikularrek eta erakunde parte-hartzaileek, 2020az geroztik, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartearen (KINE) proiektuan?

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

10-23/PES-00017. Galdera, Nafarroan egiaztatutako familia gurasobakarrei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan egiaztatutako familia gurasobakarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Zenbat familia gurasobakar daude egiaztatuta gaur egun Nafarroan? Xehatu kopurua urteka 2019az geroztik, familia-unitateko kideen kopuruaren arabera eta bizi diren udalerrien arabera.

2.- Familia egiaztatuetatik zenbatak egin dute egiaztatze hori 5/2019 Foru Legearen 3.1. artikuluari jarraikiz (Familia gurasobakarrak)? Xehatu kopurua arauak jasotzen dituen lau aukeretako bakoitzaren arabera, bai eta urtearen, kide kopuruaren eta udalerraren arabera ere.

3.- Familia egiaztatuetatik zenbatak egin dute egiaztatze hori aipatutako legearen 3.2. artikuluari jarraikiz (Gurasobakartasun-egoerako familiak)? Xehatu kopurua arauak jasotzen dituen sei aukeretako bakoitzaren arabera, bai eta urtearen, kide kopuruaren eta udalerraren arabera ere.

4.- Hasitako prozeduretatik zenbat baztertu dira titulua abiarazi denez geroztik? Xehatu datuak ukatzeko arrazoien arabera.

5.- Batez beste, zenbat denbora igarotzen da ebazpena eman eta jakinarazi arte?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00018. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailatza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa antolatzeke Mondragon Unibertsitatea hautatu izanari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailatza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa antolatzeke Mondragon Unibertsitatea hautatu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, idatziz erantzun diezaión:

Zergatik aukeratu du Garapen Ekonomikorako Departamentuak Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako hiru unibertsitateetako edozein aukeratu beharrean, hitzarmen baten bidez Ikus-entzunezko Ekintzailatza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa antolatzen, egoitza Lekarozko Enpresa-campusen CILa izanen duena?

Nafarroan, 2023ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

10-22/POR-00336. Galdera, toki-entitateek berdintasuneko eragileak kontratatzen eta sendotzen laguntzei buruzkoa.**GALDERA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera toki-entitateek berdintasuneko eragileak kontratatzen eta sendotzen

laguntzei buruzkoa zen, eta 2022ko urriaren 21eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

(INT20230001). Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek beren mailaren arabera 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, araudi indardunari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez, Nafarroako Parlamentuko langileen ordainsariek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2023rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

2. Onestea ezen, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez, ordainsariek gehikuntza bat izanen

dutela, hain zuzen ere, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2,5ekoa; eta ezartzea maila bakoitzaren 2023. urterako hasierako soldatak honako urteko zenbatekoak izanen direla:

Sailkapen-maila	Urteko zenbatekoa
A	29.367,38 €
B	24.705,80 €
C	20.494,46 €
D	17.849,02 €
E	15.700,16 €

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(INT20230001). Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten urteko ordainsari gordinak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2023. urtean jasoko dituzten ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 58.815,68. euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 44.243,36. euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 35.799,68. euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 35.799,68. euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(INT20230002). Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat jaulki du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2023. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko abenduaren 30eko erabakiaren bitartez onetsitako irizpideak aplika daitezela Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak zehazte aldera.

2. Onestea ezen, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez, lehendakariaren urteko ordainsari gordina 78.548,12 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(INT20230002). Foru parlamentariak 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat jaulki du foru parlamentarien 2023. urterako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea ezen, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez, foru parlamentarien ordainsariei gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatu-ko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2023rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide

diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 64.586,20 eurokoa izanen dela 2023. urterako.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 57.408,40 eurokoa izanen dela 2023. urterako.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 48.439,44 eurokoa izanen dela 2023. urterako.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 43.056,30 eurokoa izanen dela 2023. urterako.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(INT20230002). Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2023ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak jaulkitako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariei gehikuntza izanen dutela, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez; hain zuzen ere, Estatu-ko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2023rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2023an jasoko dituzten ordainsa-

riak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 156,60 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrorra bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

– 185,20 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(INT20230002). 2023. urterako araubidea, foru parlamentariak egiten dituzten bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariaz egiten dituztenengatiko ordainsariena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, foru parlamentarien eta Legebiltzarreko zerbitzuko langileen bidaia ofizialengatiko ordainsari-araubideari dagozkion zenbatekoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Eguneratzea, 2023. urterako, foru parlamentariak egiten dituzten bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubideari dagozkion zenbatekoak. Honako hauek izanen dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 53,30 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 85,60 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,34 €/km.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 8. artikuluekin bat (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretua), honako hauek dira zerga-kargatik salbuetsiriko zenbatekoen mugak 2023rako: mantenu-gastuengatik, egunean 53,34 euro, Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, edo egunean 91,35 euro atzerrira eginiko bidaiak direnean; lokomozio-gastuengatik, 0,32 euro eginiko kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(INT20230003). Talde parlamentarioek 2023an jasoko dituzten dirulaguntzak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2023ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan talde parlamentarioentzat onetsiriko dirulaguntzei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea ezen, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez, talde parlamentarioentzako dirulaguntzek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2,5ekoa.

2. Onestea, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Dirulaguntza finkoa: 8.459,00 euro/hilabete/talde parlamentario.

b) Dirulaguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.528,00 euro/hilabete/parlamentario.

– Antolaketa-gastuak: 1.168,50 euro/hilabete/parlamentario.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.361,00 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentario bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

